



Kutxabank
eta Fundazio akziodunak
Ekonomia, gizarte eta ingurumen
arloko jasangarritasunean erreferente
2023ko ekaina

Laburpen exekutiboa

- 1** Kutxabank **finantza-zerbitzuen erakunde liderra** da Euskadin, eta oso konprometituta dago ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren garapenari dagokionez, eta euskal ekosistema finantzarioaren sustatzaile nagusia da
- 2** Kutxabank Taldearen jarduerak, EAEn, zuzenean eta zeharka, EAeko BPGd-aren % 14,3 hartzen du, enpleguaren % 15,1 sortzen du eta zergen % 5,9 inguru sortzen laguntzen du
- 3** Eraitza gero eta handiagoa eta jasangarria sortzen dugu, eta Fundazio akziodunak itzuli egiten diote gizarteari, bere **Gizarte Ekintzaren bidez, eta garapen ekonomikoa sustatzen** dute. Bat egiten du Enpresa Erantzukizun sozialaren irizpideekin eta NBEren Garapen Jasangarriaren helburuak betetzearekin (13tik 17ra)

Edukien aurkibidea

- 1 **Erakunde eredu** propioa dauka eta etekinen% 100 gizarteari itzultzen dio
- 2 Konprometitu dago lurraldearekin, herritarrekin, enpresekin eta instituzioekin, azken finean, EA Erekin
- 3 IGG irizpideak barne hartzen dituen **negozio eredu jasangarria**
- 4 Ikuskatzaileek, arau emaleek eta inbertitzaileek **aitortutako** eredia



Kutxabank

Gure erakunde-eredua



Kutxabankek eredu propioa du. Bertan, akziodunen %100 banku fundazioak dira

170 urtean baino gehiagoan balio ekonomikoa eta soziala sortu du

Akziodunen banaketa

BBK Fundazioa
Funtzio soziala

%57

Kutxa Fundazioa
Funtzio soziala

%32

Vital Fundazioa
Funtzio soziala

%11

Banku-jarduera

Taldeak Kutxabank eta Cajasur markarekin ematen du zerbitzua

Kutxabank Cajasur Bankuaren %100ren jabea da

cajasur 

Finantza-jarduera

Andaluzian, banku-jarduera Cajasur markaren bidez egiten da, eta Fundación Cajasur eta Convisur ere badaude

Cajasur Fundazioa
Funtzio soziala

Modelo Kutxabank

Akziodunen eredua			
Bankuak	Kreditu-kooperatibak	Aurrezki-kutxak / Fundazioak	
		Jabetzaren %100	Jabetza partziala
Etekinak akziodunei ordaintzeko edo erreserbak eratzeko erabiltzen dira	Etekinak kooperatibistakordaintzera, Hezkuntzarako eta KooperatibakSustatzeko Fondora edo erreserbak eratzera bideratzen dira	Etekinak fundazio akziodunetara edo erreserbak eraikitzen bideratzen dira	Gizarte Ekintzara, gainerako erreserbak eratzera edo akziodunak ordaintzera bideratzen dira
Erakunde-kopurua			
52	62	4	2
Krisiaren aurrekoa: 66	Krisiaren aurrekoa: 81	Krisiaren aurrekoa: 46	
Erakunde nagusiak			
<ul style="list-style-type: none"> Santander BBVA Sabadell Bankinter Abanca 	<ul style="list-style-type: none"> Cajamar Laboral Kutxa Bantierra Cajalmendralejo Caja rural de Navarra 	<ul style="list-style-type: none"> Kutxabank Ibercaja Caixa Ontiyent Caixa Pollença 	<ul style="list-style-type: none"> CaixaBank Unicaja


Bere kudeaketa zuhurrari esker eredu horri eutsi ahal izango dion erakunde handi bakarra da

Dibidenduen % 100 gizarte-jardueretarako da

Akziodunak	Akziodun Fundazioen ildo estrategikoak			
 BBK Fundazioa	Heldutasun aktiboa	Familia eta haurrak	Trebakuntza eta enplegua sustatzea	Mendekotasuna eta desgaitasuna
	Efizientzia, hurbiltasuna eta "errentagarritasun soziala"		Hirugarren sektorea indartzea	Sormenaren eta berrikuntzaren kultura
 KUTXA Fundazioa	Gipuzkoako enpresa estrategikoetan parte hartzea	Jarduera sozial propioa garatzea	Kutxa Ekogunea	Tabakalera
			Sala Kubo-Kutxa	Eureka! Museoa
			Onkologikoa Fundazioa	
	Gizarte-jarduera sustatzea lankidetzan			
 VITAL Fundazioa	Arabako Koadrilen proiektua	Enplegua eta laneratzea	Ekintzailatza, ikerketa eta berrikuntza	Balioetan oinarritutako hezkuntza
	Arabako ehun kulturala eta kirola		Arabako ingurumenarekiko eta kultura-ondarearekiko konpromisoa	

**1.200 MM
€-tik gora
dibidenduetan
2012tik**

Iturria: barne-informazioa, fundazio akziodunen plan estrategikoak (BBK Fundazioa, Kutxa Fundazioa eta Vital Fundazioa)






















Iturria: geuk egina. Banca Civicaren kasuan (Cajasol, Nafarroako Kutxa, Caja Canarias, Caja Burgos) Caixabankek itzuli egin zituen laguntza publikoak horiek erosi ondoren

Liderra da finantza erakundeek laguntzarik jaso ez duten autonomia erkidego bakarrean

Finantza krisian laguntzak jaso zituzten finantza erakundeen kopurua, autonomia erkidegoen arabera

Andaluzia	3	Madril	1
Aragoi	2	Murtzia	1
Asturias	1	Valentziar Komunitatea	2
Balear Uharteak	1	Gaztela eta Leon	6
Kanariak	2	Katalunia	4
Kantabria	1	Errioxa	1
Gaztela-Mantxa	1	Nafarroa	1
Extremadura	2	Euskadi	0
Galizia	3		

Jasangarritasun ekonomikoarekiko, sozialarekiko eta ingurumenekoarekiko konpromiso argia du bere misioan, ikuspegian eta balioetan

Misioa	Ikuspegia	Balioak	
<p>Kutxabankek jasangarritasunean oinarritutako irizpideekin sortzen du balio ekonomian eta gizartean. Horretarako, kalitatezko finantza aurreratu eta berritzaileak eskaintzen ditu</p> 	<p>Erreferentziazko Banka Komertziala </p>	<p>Hurbiltasuna </p>	 Soziala  Gobernantza  Ingurumena
	<p>Talde sendoa  </p>	<p>Erraztasuna </p>	
	<p>Gizartearekin arduratsuak   </p>	<p>Gardentasuna </p>	
	<p>Konfiantza  </p>	<p>Berrikuntza</p>	
		<p>Zuhurtzia eta Kaudimena</p>	
		<p>Konpromisoa   </p>	
		<p>Jasangarritasuna </p>	

Iturria: geuk egina, 2022-2024 Plan Estrategikoa

IGGrekiko (Ingurumena, Gizartea eta Gobernantza) konpromisoak banku eredua ulertzeko duen moduak garrantzia du




ENVIRONMENTAL INGURUMENA

CO₂ emisioak
Gertakizun klimatikoak
Kutsadura
Jasangarritasuna
Ekonomia zirkularra



SOCIAL GIZARTEA

Aniztasuna
Giza-eskubideak
Segurtasuna
Kontsumitzaileak
Berdintasuna
Hizkuntza-babesa



GOVERNANCE GOBERNANTZA

Estrategia
Arriskuen kudeaketa
Gardentasuna
Soldata-politikak
Lan-harremanak

**Lurraldearekiko,
herritarrekiko, enpresekiko
eta instituzioekiko
konpromisoa**

Kutxabank

Lurraldearekin
konprometituta






Finantza erakunde baten
presentziarik handiena du EAEn.
Ondorioz, finantza inklusioa
bermatzen du

EAEko **landa eremuetan oinarrizko
banku zerbitzuak emateko,
konpromisorik handiena duen**
finantza erakundea Kutxabank da

Kutxabanken bulego-sarearen banaketa (2022 eko abendua)



Iturria: barne-informazioa

	KUTXABANK, S.A.	
	GUZTIRA	EUSKADI
BULEGOAK	445	269
< 10.000 bizilaguneko udalerriak	112	109
> 10.000 bizilaguneko udalerriak	333	160
BULOGOETAKO ENPLEGATUAK	2.739	1.750
< 10.000 bizilaguneko udalerriak	280	273
> 10.000 bizilaguneko udalerriak	2.459	1.477

EUSKADI	KUTXABANK	Gainerako entitateak	Entitate guztiak
Entitate guztiak		31	32
Bulegoak dituzten udalerriak	148	101	148
Bulegorik gabeko udalerriak	103	150	103
Udalerri guztiak	251	251	251

Kutxabank

Herritarrekin konprometituta



Konpromisoa hartzen dugu pertsonekin, haien finantza-prestakuntzarekin, gure zerbitzuetarako sarbidearekin eta elkarteen



Aniztasun funtzionala dutenen alde

- Bulego eta kutxazain automatiko gehienak desgaitasunen bat dutenentzat egokituta daude
- Hornitzaileen politikan kontuan hartzen du
- Hirugarren sektoreko elkarte eta fundazioekin lankidetzan dago



Elkarteen eta fundazioen laguntzak

- Urtean 5 milioi baino gehiago gizarte, kultura, kirol, enpresa eta beste hainbat arlotako elkarte zein fundazioei bideratuta
- 250 proiektu baino gehiago lankidetzan 2022ean



Hizkuntza-politika


- Arreta hizkuntza koofizial guztietan bermatzen du bere zerbitzuak eskaintzen diren lekuetan
- Euskara sustatzeko akordio espezifikoak ditu



Finantza-hezkuntza

- Oinarrizko finantza trebetasunei buruzkoprestakuntza programa, DBH eta LHko ikasleentzat. Jolasteko eta prestakuntza jasotzeko saioak euskaraz nahiz gaztelaniaz
- 60 ikastetxe baino gehiago, 2.100 ikasle baino gehiago 2022an, 14.300 ikasle baino gehiago 2013tik
- Unitate espezializatuek aseguruiei eta bankuei buruzko prestakuntza ematen dute

Eragina enpleguaren gain



Iturria: CEPREDE

Gure langileekin, eta enpleguarekin, gure jarduera korporatiboari eta finantzarioari esker

2.800 langiletik gora EAEn, eta horietatik 300ek baino gehiagok landa eremuetan eskaintzen dute zerbitzua

Guztira Kutxabankekin 143.000 lanpostu baino gehiago mantentzen ditu Euskadin

Kutxabank

Enpresekin konprometituta





Gure bezeroen jarduera finantzatzen dugu, eta EA Erentzat enblematikoak diren proiektuetan parte hartzen dugu

Enpresa proiektuen finantzaketa

Enplegua sortu eta inguruneari balioa ematen dioten ad hoc enpresa autogestionatuak sortzen ditu, esaterako: Bilboaldeko hegoaldeko saihezbidea (Supersur), Arabako Bideak-Vías de Álava, Gerediaga-Elorrioko erradiala etab.

Industria-partaidetzarako funtsak

EKARPEN Eusko Jaurlaritzaren, Aldundien eta Kutxabanken artean industria partaidetzarako sortutako funtsak enpresen kapital sozialean parte hartzen du, haien kudeaketan sartu gabe. Horrela, EA Eko enpresa industrial nagusien erabakigunea bertan egotea sustatzen du, horrek bertako Enpresa Txiki eta Ertainei dakarkien onurekin. Kutxabankek EKARPEN funtsaren % 44 dauka

Enpresa eragileetan parte hartzen du

Finantza-eragileekin batera, enpresa-ehunari laguntzeko tresna garrantzitsua da. Egoera zaila bada ere, Kutxabankek euskal ekonomiarentzako trakzio-proiektuen gune garrantzitsu batean parte hartzen du, eta proiektu horiei eusten, aberastasuna sortzen eta enplegua mantentzen laguntzen du. Aipatzekoak dira, besteak beste, Iberdrola, Petronor, CAF edo Ingeteam enpresetako partaidetzak

Izen handiko proiektuak babesten ditu

Kutxabankek izen handiko proiektu askoren kapitalean ere parte hartzen du. Proiektu horiek beren helburu sozialaren bidez balioa sortzeaz gain, ekonomiaren hainbat sektore sustatzen dituzte: trenbide-industria, logistika, eraikuntza, garraioa, etab. Gasteizko Garraio Zentroa – CTV, Arasur, trenen alokairua, metroen alokairua



Epe luzeko harremana dugu
gure hornitzaileekin, batez ere tokikoekin


Hornitzaileak

- Gehienbat tokiko hornitzaileei erostea
- Erosketa jasangarrirako politikak
- Giza eskubideen errespetuari eta ingurumenaren babesari buruzko Mundu Itunaren printzipioak betetzeko eta ustelkeriaren aurkako akordioak gure hornitzaile gehienekin

226 MM € ordainketetan 2022an
4.070 euskal hornitzaile baino gehiagori

Ordaintzeko batez besteko epea <15 egun

Eragina BPGren gain (Milioi euro)



Horri esker ekonomiaren balio erantsia sortzen eta mantentzen enpresa nagusietako bat gara

Kutxabankek EAEko BPGd-aren %1,3 sortzen du, eta haren %13,1 inguru mantentzen laguntzen du

Kutxabank


Administrazio publikoekin
konprometituta



Zerga-ekarpen handiena egiten duten enpresetako bat bezala nabarmentzea

Kutxabankek 340 MM €-tik gora ordaintzen ditu zergetan eta Euskadin 3.900 €-tik gora biltzen laguntzen du

Jasandako nahiz bildutako zergak eta tasak (milioi euro)



Fuente: CEPREDE

Kutxabank EAeko instituzioei finantzaketa eta bankuko zerbitzuak emateko funtsezko hornitzailea da

- 1. Epe luzeko harremana du euskal instituzioekin**, eta gaur egun **6.000 milioi euro baino gehiago ditu emandako finantzaketan**
- 2. Eusko Jaurlaritzaren jaulkipenen aholkulari eta jartzaile nagusia da** Norbolsa bidez (bonu jasangarrien jaulkipena, zor publikoaren trukea...). Euskal instituzioentzat eragiketa nagusietan lehena da
- 3.** Kutxabank lehena da, besteak beste, administrazio publikoek, Interbiak, BECek sustatutako proiektu handiak finantzatzen
- 4. Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan ari da hainbat hitzarmenetan** (Enpresa Txiki eta Ertainei laguntza ematea, Etxebizitza, Energia Eraginkortasuna)








Kutxabank

EAErekin konprometituta



Finantzaketan erreferentziazko erakundea gara Partikularrentsako, ETEentzako eta Euskadiko erakundeentzako







Arloa	Bolumena ¹	Kuota	Ranking-a
 Kreditua Guztira	20,5	≈%30	1°
 Administrazioak	>3,7	≈%50	1°
 ETEak eta Autonomoak	1,7	>%15	2°
 Etxebizitza	11,8	>%40	1°
 Kontsumoa	0,7	>%30	1°

Datuak. 2022-12-31. Datuetan ez daude Banco Santanderrenak ETEn, autonomoen, etxebizitzaren eta kontsumoaren datuen xehetasunak, ez baitu informazioa ematen autonomia erkidegoen arabera

Iturria: Espainiako Bankua eta erakundeen urteko txostenetako datuak. Arriskuan jarritako guztizko diru kopuruak kreditu inbertsioa, zor tresnak eta eratorriak barne hartzen ditu, baina kreditu erakundeak eta beste finantza erakunde batzuk kanpoan uzten ditu

1 mila milioi euro


Eta bezeroen baliabideak kudeatzean

Arloa	Bolumena ¹	Kuota	Ranking-a
 APen gordailuak	4,4	≈%45	1º
 Gainerako gordail	28,8	≈ %50	1º
 Helbideratutako nominak	326.000	> %40	1º
 Helbideratutako pentsioak	249.000	> %50	1º
 Banakoko BGAEak	>5,7	≈ %50	1º
 Inbertsio funtsak	>15	> %40	1º

Iturria: sektorekako informazio publikoa 2022eko abenduan


1 Mila milioi euro

Kutxabank da euskal finantza ekosistemaren sustatzaile nagusia



Gure banku-jarduera Euskadin errotuta dauden Finantza Taldeko sozietateekin osatzen da

Gure lurraldeko funtsezko erakunde eta elkarten hitzarmenetan parte hartzen dugu



Kutxabank Taldearen inpaktu ekonomikoa. Euskadi

	JARDUERA KORPORATIBOA			FINANTZA JARDUERA		
	BPGd	ENPLEGUA	ZERGAk	BPGd	ENPLEGUA	ZERGAk
Zuzenekoa	650	2.867	221	--	--	--
Zeharkakoa	268	4.566	116	9.041	131.953	3.775
Eragindakoa	9	133	4	319	4.443	129
GUZTIRA	927	7.566	341	9.360	136.396	3.904
	1,3%	0,8%	0,4%	13,05%	14,34%	5,44%

CEPREDE. Ehunekoak BPGren gainean kalkulatuta daude, biztanleria landunaren gainean kalkulaturako enpleguarena izan ezik



BPG guztiarena



Enpleguarena



zergena
%tan BPGren gain

Kutxabank

Jasangarritasunarekin
konprometituta



Aitzindariak gara finantza-sektorean jasangarritasunaren arloan



Gure negozio-ereduak NBERen Garapen Iraunkorreko Helburuak betetzeko lan egiten du (17tik 13)



IGG irizpideak barne hartzen ditu

- 2015ean **bonu soziala** jaulki zuen estatuko lehenengo finantza erakundea da
- **Energia %100 berriztagarri** hornitzeko epe luzerako hitzarmena sinatu zuen lehenengo finantza erakundea da
- **Karbono aztarna neutroa** izan duen lehenengo finantza erakundea da, kontsumoa murriztuz eta gure basoak kudeatuz
- Gizarte Inbertsio Arduratsuan aitzindaria da, 17 urtetik gorako eskarmentuarekin.
- 16 urteko esperientzia du **jasangarritasunari** buruzko auditoria egiten



Kutxabank taldea sozialki arduratsuak diren inbertsioak kudeatzen dituen erakunde nagusienetakoa da



- NBEren UNPRI “**Principles For Responsible Investment**” programari atxikita 2017. urtean. 2021eko Auditorian **4/5eko kalifikazioa kategoria nagusietan** (Estrategia, Errenta Aldakorra eta Errenta Finkoa)
- **Liderra SFDR araudia** ezartzen (ISR arloko dibulgazioa):
 - **Aktiboki merkaturatutako funts guztiak 8. artikuluko gisa katalogatu dituen lehen erakunde eta bakarra**
 - **9. artikuluko bi funts berri** merkaturatuta (Errenta Aldakorra eta Errenta Finkoa)
 - 2023an **8. artikuluko gisa katalogatu** dira kudeatutako zorro guztiak (**Baskepensiones + KB Pentsioak**)
- **Aitzindariak fondo solidarioak merkaturatzen, Kutxabank Solidario 2005ean** (%0,70 bideratu da banku-fundazioetara + Gureak + Lantegi Batuak)
- **Parte-hartze aktiboa gizaratean Inbertsio Iraunkorra zabaltzen** (ekitaldietan parte hartzea, artikuluko akademikoa, unibertsitate-masterra)



- NBEren UNPRI “**Principles For Responsible Investment**” programari atxikita 2016. urtean, eta Urteko Auditoria “**A**” kalifikazioarekin (Strategy & Governance)
- Finecoren **Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren eta Iraunkortasunaren Memoriaren** argitalpena
- **ESG politika** eguneratzea, **kudeatutako ondareari %100ean aplikagarria dena, %50ek baino gehiagok ESG ezaugarriak sustatzen dituelarik**
- **Bezeroen egokitasuna ebaluatzeko prozedura** egokituta aholkularitzaren esparruan, **iraunkortasun-lehentasanak** ebaluatzea eta reporting-esparrua egokitzea barne
- **Aliantzak finantza iraunkorretan liderrak diren hiru garren kudeatzaileekin**, esaterako Robeco, Schroders, Blackrock edo Amundi-rekin
- “**ESG Investment and Finance Summer Programme**”ren antolaketa Deusto Business School-ekin
- **8. artikuluan** katalogatutako 4 funts xedatu dira, CNMVren baimenarekin, (konpartimentu bakoitzeko funts berri batez gain), **kudeatutako funts guztien %47 izanik**







- **Aurrerapen sendoa Iraunkortasunaren Ibilbide Orriaren** lan ildoetan
- **Klima-arriskuaren kudeaketa** inplementatu da **inbertsio** proiektuen **zorroan**:
 - **Trantsizio-arriskurako esposizioaren azterketa** zorro guztietan txertatuta
 - **Bazterketa-prozedura indarrean**, inbertsio berrietan aplikatzeko
- **Etxeko eta Bizitzako zorrotarako** klima- eta ingurumen-arriskuen gaineko **erresistentzia-azterketak eta -probak indartu dira** (arrazoi klimatologikoengatik ezbehar-tasa handitzea, itsas mailaren igoerak eragindako inpaktua, hilkortasun- eta bizitza-luzaroko arriskuei buruzko azterketa kualitatiboa, etab.)
- **Banakako pentsio-funtsak Dibulgazio Erregelamenduaren 8. artikulua**ren arabera katalogatu ahal izateko aplikatu beharreko araudiak **ezarritako eskakizunak bete dira**



- **Eusko Jaurlaritzaren bonu jasangarrien VI. eta VII. jaulkipenen koordinatzaile orokorra** - 600MM € eta 700MM €, hurrenez hurren
- **Ordainduko berdeen programaren erakunde kokatzailea** (Hosaluz - 100 MM €), eta iraunkortasunari lotutako ordaindukoen programaren erakunde kokatzailea: Tubacex (200 MM €), Elecnor (400 MM €), Pikolín (50 MM €), El Corte Inglés (1.200 MM €), Barceló (200 MM €)
- **ISR zorroak ESG > %70eko balorazioarekin**

Kutxabank Taldearen ekimenak

	Hipoteka berdea	853MM€ (ekoizpen berriaren % 27)
	Kontsumo berdea	16,6MM€ (x2,4 2021arekiko)
	Enpresen finantzaketa	1.514MM€ (horietatik 124MM € gizarte-arlokoak baino ez dira)
	Aseguru berdea	1.996 nuevas pólizas (+% 2,5 aurreko urtearekin alderatuta)

Pentsio Planak ere jasangarri gisa sailkatu dira,
8. artikulua araber (KB Gestioaren Kudeaketa
Aktiboko Inbertsio-funtsez gain)

Fin. Jasangarria guztira:

2.384MM€

(2022rako helburuaren
% 159 betetzea)



Ingurumenarekin oso konprometituta gaude, eta urtez urte hobetzen dugu gure karbono-aztarna



EMISION INTENTISTATEA (KUTXABANK ETA CAJASUR)	2020	2021	2022
Scope 1	867,66	753,04	580,50
Scope 2	0	0	0
Scope 3	414,21	380,38	512,72
TnCO₂e emisionak (1,2 eta 3)	1.281,87	1.133,42	1.093,22
Enplegatuak (Kutxabank eta Cajasur)	5.365	5.205	5.023
Enplegatu bakoitzeko emisio intentsitatea	0,24	0,22	0,22

EMISION INTENTISTATEA (KUTXABANK TALDEA)	2022
Scope 1	9,93
Scope 2	0
Scope 3	27,81
TnCO₂e emisionak (1,2 eta 3)	37,75
Enplegatuak	320
Enplegatu bakoitzeko emisio intentsitatea	0,12

* Honako erakunde hauentzako aztarna kalkulatu da: Fineco Taldea, Gesfinor, Kutxabank Gestión, Norbolsa eta Higiezinaren Taldea

Iturria: geuk egina

- Kutxabanken jarduerak 1.093 tona CO₂ baliokide sortu zituen 2022an, aurreko ekitaldian baino % 4 gutxiago. 2020ko ekitaldian % 84 jaitsi zen, neurri handi batean Iberdrolarekin Nuñez de Balboa eguzki-plantaren energia % 100 berriztagarria hornitzeko epe luzerako akordioa indarrean sartu zelako
- Euskadin kudeatutako 900 hektarea baso baino gehiago ditu Kutxabankek
- Kalkulatutako karbono-aztarna % 86ra arte murriztea ezarri da 2024rako, 2019ko oinarri-urteko emaitzeekin alderatuta
- 2022an, 83 hektarea birpopulatu dira, eta horietan 100.000 zuhaitz landatu dira, CO₂ xurgatzeko ahalmenaren arabera espezieak hautatzeko irizpide berriekin
- Kutxabankek berriro kalkulatu ditu bere historian kudeatu dituen ustiategi eta baso guztien estimazioak, eta dauden baso eta ustiategietan 243.772,18 tona CO₂e xurgatu ditu

Gure eraginkortasun energetikoa hobetzearen alde lan egiten dugu, ekonomia zirkularraren eta gizarte-sentsibilizazioa areagotzearen alde



Energia kontsumoa eta karbono-aztarna

- CO2 isuri negatiboak, Taldearen instalazioetan energia-kontsumoa etengabe murrizteari esker, ordutegiak, tenperaturak eta instalazioak arautzeko neurriekin
- eta Euskadin kudeatutako 1.000 ha baso ingururekin
- Espainian epe luzerako energia berriztagarria saltzeko lehen akordioa Iberdrolarekin, gure energiaren % 100 berriztagarria izango dela bermatzen duena

Sentsibilizazioa

- Langileak aktiboki inplikatzan ditugu, prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren bidez, eta praktika arduratsuak sustatuz. Gure jarduera garatzen dugun gizarteari ingurumenaren inguruko kontzientzia-aztarnaren berri ematen diogu
- Herritarren ingurumen-hezkuntzan eta -sentsibilizazioan eragina duten programak bultzatzen ditugu

Paperaren kontsumoa

- Erabilitako paper guztia baso jasangarrietatik dator
- Kontsumitutako papera etengabe murrizteko neurriak. Kontsumitutako paper-bolumenaren etengabeko beherakada: Bi orrialdeetatik inprimatzea, paperaren ordezkari PDFak sortzeko prozesuak berrikustea, posta elektronikoa

Produktu "berdeak"

- Ingurumenaren alde lan egiten duten erakundeekin kidetasun-txartelak ditugu, baita etxebizitzak, ibilgailuak eta etxetresna ekoeraginkorrak finantzatzeko mailegu berdeak ere
- Baso-espazioak, energia berriztagarriak eta energia-eraginkortasuna babesteko proiektuak babesten ditugu, besteak beste. Enpresa askok ingurumen-ikuspegitik jasangarriak diren proiektuak dituzte, eta Kutxabanken bezero dira

Sortu ginenetik, gizarte-arloko lidergoarekin

Lan-harremanak

- Hitzarmen kolektibo propioa
- Langileen >% 94k baino gehiagok kontratu mugagabea du
- Prestakuntza plana
- Gaitasunen araberako hiztegi eta ebaluazio prozesua
- Boluntarioritza korporatiboa

Banku-fundazioak

- BBK, Kutxa eta Vital banku fundazioekin lankidetzan ari da beren jarduerak garatzeko
- 1.200 milioi euro baino gehiago dibidenduetan, Kutxabank eratu zenetik
- Cajasur Fundazioa eta Convisur, Gizarte Ekintzari bere jarduketa eremuetan eusteko

Berdintasun-plana

- Berdintasun plana, langileen ordezkariekin sinatua
- Lana eta familia bizitza bateratzeko neurriak
- Gehienak emakumeak (%60) eta erantzukizuneko postuetan daudenak >% 50 dira

Babes Ofizialeko Etxebizitzak, Kooperatibak

- Lehenak kooperatibak, Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta Udalek Babestutako Etxebizitzak sustatzeko finantzaketan bere jarduera burutzen duen lurraldeetan, krisiaren aurretik, bitartean eta ondoren
- Instituzioekin hitzarmenak ditu eta finantzaketa baldintza berezietan eskaini die erosle gazteei
- Ingurumen arloko efizientzia irizpideak dituzten babes ofizialeko etxebizitza berriak



Merkatuko jardunbide onenekin bat datorren gobernantza-ereduarekin, eta gardentasunean hobetzen jarraituz



- 2007az geroztik **urtero argitaratu eta ikuskatutako memoria**, aditu independente batek (AENOR) egina
- **Global Reporting Initiativeren estandarrak** betez
- **Interes-taldeek garrantzitsutzat jotzen duten informazioa** du
- **Taldeko erakunde guztiak** biltzen ditu
- **Administrazio Kontseiluak** onartzen du
- Honako hauei buruzko informazioa jasotzen du:
 - **Erakundearen** profila
 - **Gobernu korporatiboa**
 - **Etika eta osotasuna**
 - **Jarduera ekonomikoa**
 - **Ingurumen-jarduna** (kontsumoak, hornitzaileen ingurumen ebaluazioa, ingurumen araudia betetzea)
 - **Gizarte-jarduna** (langileria, gizarte ekintza, erosketa arduratsua, hizkuntza kudeaketa, balio sorkuntza)

Gainera, Kutxabank **Nazio Batuen Mundu Itunaren sinatzailea da 2012tik**, eta, aldizka, betetze-mailari buruzko jarraipen-txostena egiten du

Kutxabank

Gizartearekin konprometituta





**HEMEN
JARRAITZEN
DUGU
ETXEAN
GERATZEKO
AUKERA IZAN
DEZAZUN**

Une zailetan familiei eta enpresei laguntzen saiatzen gara

Finantza laguntza familiei, negozioei eta enpresei

- Ahulezian dauden familientzako eta kolektiboentzako **zorraren luzamendua**
- **ICO eta Elkargi** erakundeen maileguak
- **Aurrez emandako** maileguak
- **Pentsioen eta langabezia prestazioaren ordainketa aurreratzea**
- **BGAEak eta Pentsio Planak erreskatatzeko aukera**
- **Ordainketa aldi baterako barkatzea** FSV alokairuan
- **OK eta Negozio Kontuetako baldintzen** tratamendu berezia
- **Kreditu txartelen zordunketa geroratzea**
- **Taldeko hornitzaileei ordaintzeko epeak murriztea**

Osasun larrialdian gizartearekin lankidetzan aritzea

- **Kutzazainetan dirua zordunketan komisiorik gabe ateratzeko aukera**
- PIN zenbakirik gabeko **Contactless sistemaren muga handitu da**
- **Urruneko bankua eta ordainbideak sustatu dira**
- **Urruneko kudeaketa pertsonalizatua indartu da**

Kutxabank

Liderrak kaudimenean



Eta, gainera, ikuskatzaileek, arautzaileek eta merkatu-eragileek erakunde lider gisa kokatzen gaituzte

Ikuskatzaileak

SREP erabakia

	P2R	ESP	EUR
		1°	3°

Gardentasuna

		ESP
CET1	1°	
MORA	1°	
GELDITUTA EGITEA	1°	

Ebazpena

		ESP
MREL	1°	

Erakunde esanguratsuen artean

Merkatua

Duela gutxi, **Moody's-ek Entitatearen kalifikazioa hobetu du A3 ratingeraino, eta DBRSk A (low)* esleitu digu**

FitchRatings A- Stable

MOODY'S A3 Stable

DBRS A (low) Positive

* Ratinga epe luzerako zorrari dagokio

Rating ESG Sustainalytics




9.2
Updated
Dec 20, 2022

-15.4
Momentum

Negligible Risk

NEGL	LOW	MED	HIGH	SEVERE
0-10	10-20	20-30	30-40	40+

Sustainalyticsek **ESG arrisku-maila txikia** duen Entitatea sailkatu du **mundu mailan sailkapenik onena duten konpainien % 1en barruan**



KUTXABANKEN EFIZIENTZIA ENERGETIKORAKO MAILEGUA



**ETXEAN EDO KOMUNITATEAN BERRIKUNTZAREN
BAT EGITEA PENTSATZEN ARI BAZARETE,
KUTXABANKEN ZUENTZAKO AUKERARIK ONENA DUGU.
GALDETU GURI.**

TEKNOLOGIA
BERDEAK
JARTZEKO

LED
ARGIZTAPENA
IPINTZEKO

KLIMATIZAZIO
ARDURATSUA
ERABILTZEKO

FATXADAK
BERRITZEKO

ISOLAMENDUA
HOBETZEKO



**KUTXABANK
NEXT**